



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023IPLE0001

**Eguna:** 2023-01-31

**Ordua:** 19:00 – 19:45

**Tokia:** Areto nagusian

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez ..... Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz ..... Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV

#### Bertaratu ez direnak

- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk	ORDEN DEL DIA
2022ko abenduaren 15eko akta onartzea.	•	Aprobación del acta de 15 de diciembre de 2022.
Beterri Buruntzako batzorde kudeatzaileko ordezkariak.	•	Representantes de la comisión gestora de Beterri-Buruntza.
Batzorde informatzaile iraunkorren berrantolaketa.	•	Reorganización de las comisiones informantes permanentes
Kreditu aldaketa: KALD-0011 kreditu transferentzia.	•	Modificación de créditos: transferencia de crédito KALD-0011
2023ko langile zerrenda eta plantila organikoa: alegazioa, zuzenketa eta behin betiko onarpena.	•	RPT y plantilla orgánica del 2023: alegaciones, corrección y aprobación definitiva.
2023ko ordainsari-igoera	•	Incremento retributivo 2023,
2023ko zerga fiskalen aldaketa. Hasierako onarpena.	•	Modificación de las Ordenanzas Fiscales 2023. Aprobación inicial.
Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena.	•	Modificación de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones. Aprobación



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

		inicial.
Astigarragako Udalean aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia: alegazioak eta behin betiko onarpena.	<ul style="list-style-type: none"><li>•</li></ul>	Reglamento para la gestión de las bolsas de trabajo temporal en el Ayuntamiento de Astigarraga: alegaciones y aprobación definitiva.
Zero Zabor Udalerrriak ziurtapen programan parte hartzea (Zero Waste cities Certification Programme)	<ul style="list-style-type: none"><li>•</li></ul>	Participación en el programa de certificación Zero Zabor Udalerrriak (Zero Waste cities Certification Programme)
Nortasun juridikorik gabeko elkartzea, uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko (PERTE uraren zikloaren digitalizazioa)	<ul style="list-style-type: none"><li>•</li></ul>	Agrupación sin personalidad jurídica para la elaboración de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua (PERTE digitalización del ciclo del agua)
Informazio, galdera eta eskariak.	<ul style="list-style-type: none"><li>•</li></ul>	Información, ruegos y preguntas.

### Esan-eginak eta erabakiak

#### **1.-2022ko abenduaren 15eko akta onartzea.**

Alkatea abstenitu egin da, gaixotasun-bajarekin zegoenez aurreko bileran egon ez zelako; gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

#### **1.-Aprobación del acta de 15 de diciembre de 2022**

El alcalde se ha abstenido por no estar presente en la reunión anterior al encontrarse de baja por enfermedad y el resto votan a favor. Por lo tanto, se aprueba el acta.

#### **2.-Beterri Buruntzako batzorde kudeatzaileko ordezkariak.**

Alkateak azaldu du bere gaixotasun-bajan alkateordeak bere eginkizunak eta eskumenak bere gain hartu zituenaz, 2022ko irailaren 27ko osoko bilkuran erabaki zela Beterri-Buruntzako kudeaketa-batzordeko ordezkarien izendapena aldatzea, eta orain lanera itzuli eta horiek bereskuratu dituenaz, proposatzen dela akordio hau hartzea:

**Lehenengoa.-** Indarrik gabe uztea 2022ko irailaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakia, Beterri-Buruntzako kudeaketa-batzordeko ordezkarien izendapena aldatzeari buruzkoa.

**Bigarrena.-** Akordio honen berri ematea ordezkari gisa izendatu ziren zinegotziei, Andoain, Hernani, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzaileari.

Nerea zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du egindako izendapenekin ez daudela ados, baina orain irailekoa bertan behara utziko dutenez, alde bozkatuko dutela.

#### **2.-Representantes de la comisión gestora de Beterri-Buruntza.**

El Alcalde señala que dado que en su baja por enfermedad la Teniente de Alcalde asumió sus funciones y competencias, en sesión plenaria celebrada el 27 de septiembre de 2022, se acordó modificar el nombramiento de los representantes en la Comisión Gestora de Beterri-Buruntza, y que al haberse reincorporado y recuperado su competencias, propone adoptar el siguiente acuerdo:

**Primero.-** Dejar sin efecto el acuerdo adoptado en la sesión plenaria de 27 de septiembre de 2022, en relación a la modificación de la designación de los representantes en comisión gestora de Beterri-Buruntza.

**Segundo.-** Dar traslado del presente acuerdo a las y los concejales que fueron designados y a los Ayuntamientos de Andoain, Hernani, Urnieta, Usurbil y Lasarte-Oria y a la Comisión Gestora

La concejala Nerea toma la palabra para manifestar que no están de acuerdo con las designaciones realizadas, pero que como se va a dejar sin efecto el acuerdo adoptado en septiembre, van a votar a favor.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la propuesta por **unanimidad**.

### **3.-Batzerde informatzaile iraunkorren berrantolaketa.**

Alkateak azaldu du 2022ko langile zerrendan kultura, euskara, hezkuntza eta jaiak teknikari plaza bitan zatitu eta dagoeneko euskara eta hezkuntza teknikari berria lanean hasi denez, egoki ikusten dutela batzerde informatzaileak ere berrantolatzea. Jarraian, proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena**- Izaera iraunkorreko Batzerde Informatiboan antolaketa aldatzea, kultura, euskara eta jaiak batzerdea kenduz, eta bere ordeaz bi hauek sortuz:

1. kultura eta jaiak
2. euskara

**Bigarrena**- Kultura eta Jaiak batzorderako osaera hau onartzea:

Lehendakaria: Aintzane Barandiaran  
Batzordekideak:  
Ione Olatziregi  
Xabier Urdangarin  
Urkiri Salaberria  
Mikel Duran

**Hirugarrena**- Euskara batzorderako osaera hau onartzea:

Lehendakaria: Aintzane Barandiaran  
Batzordekideak:  
Roxali Fernández  
Xabier Urdangarin  
Urkiri Salaberria  
Mikel Duran

**Laugarrena**- Hezkuntza eta DBHren aldeko batzordearen osaera aldatzea, eta honako hau onartzea:

Lehendakaria: Roxali Fernández  
Batzordekideak:  
Xabier Urdangarin  
Aintzane Barandiaran  
Nerea Zusberro  
Mikel Duran

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

### **3.-Reorganización de las comisiones informantes permanentes**

El Alcalde que dado que en la RPT de 2022 se dividió en dos la plaza de técnica de Cultura, Euskera, Educación y Fiestas, y ya ha empezado a trabajar al nuevo técnico de euskera y educación, consideran oportuno reorganizar también las comisiones informativas. A continuación presenta para su aprobación la siguiente propuesta:

**Primero**- Modificar la organización de las comisiones informativas permanentes, eliminando la comisión de "cultura, euskara y fiestas" y creando en su lugar las dos siguientes:

1. cultura y fiestas.
2. Euskara

**Segundo**- Aprobar la siguiente composición para la comisión de cultura y fiestas:

Presidenta: Aintzane Barandiaran  
Vocales:  
Ione Olatziregi  
Xabier Urdangarin  
Urkiri Salaberria  
Mikel Duran

**Tercero**- Aprobar la siguiente composición para la comisión de euskara:

Presidenta: Aintzane Barandiaran  
Vocales:  
Roxali Fernández  
Xabier Urdangarin  
Urkiri Salaberria  
Mikel Duran

**Cuarto**- Modificar la composición de la comisión de "educación y a favor de la ESO", aprobando por la siguiente:

Presidenta: Roxali Fernández  
Vocales:  
Xabier Urdangarin  
Aintzane Barandiaran  
Nerea Zusberro  
Mikel Duran

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la propuesta por **unanimidad**.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **4.-Kreditu aldaketa: KALD-0011 kreditu transferentzia.**

Aurrekontuko kredituak, kreditu-transferentziaren modalitatean, aldatzeko espediente onartzen duen 108/2023 Dekretuaren berri eman du alkateak, eta horren zergatia azaldu du.

### **4.-Modificación de créditos: transferencia de crédito KALD-0011**

El alcalde da cuenta del Decreto 108/2023, por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos del Presupuesto, en la modalidad de transferencia de créditos, y ha explicado las razones por las que se ha llevado a cabo.

### **5.-2023ko langile zerrenda eta plantila organikoa: alegazioa, zuzenketa eta behin betiko onarpena.**

Alkateak azaldu du azaroko bileran hasierako izaeraz onartu zela eta alegazio epean bat aurkeztu dela, eta gainera, praktiketako udaltzain agenteak uko egin diola plazari.

Ondoren, Kudeaketa eta Pertsonala Batzorde Informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.**- IOAk aurkeztutako alegazioa onartzea.

**Bigarrena.**- Praktiketako udaltzain agenteak plazari egindako uko-egitea isladatzea, eta plaza hori

**Hirugarrena.**- Langileen zerrendan eta plantila organikoa behin betikoz onartzea.

**Laugarrena.**- Langileen zerrendan eta plantila organikoa argitaratzea GAOn eta udalaren gardentasun atalean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

### **5.-RPT y plantilla orgánica del 2023: alegaciones, corrección y aprobación definitiva.**

El alcalde explica que en la sesión de noviembre se aprobó con carácter inicial y que en el plazo de alegaciones se ha presentado una y además el agente de la Policía Municipal en prácticas ha renunciado a la plaza.

Acto seguido, presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Gestión y Personal:

**Primero.**- Estimar la alegación presentada por IOA.

**Segundo.**- Reflejar la renuncia a la plaza realizada por el agente de la Policía Local de prácticas y hacer constar que la misma se encuentra vacante.

**Tercero.**- Aprobar definitivamente la RPT y la plantilla orgánica.

**Cuarto.**- Publicar la RPT y la plantilla orgánica en el BOG y en el portal de transparencia del Ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### **6.-2023ko ordainsari-igoera**

Alkateak Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.**- Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdina izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzintasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik

### **6.-Incremento retributivo 2023.**

El Alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

**Primero.**- Aprobar un incremento global del máximo legal permitido del 2,5 por ciento, respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo con efectos de 1 de enero de 2023, todo ello de



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19- Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.*

**Bigarrena.-** Aipatu igoera aplikatzea udal langileen nominetan.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

*conformidad con lo dispuesto en el artículo 19 Dos. 1 de la Ley 31/2022 de Presupuestos Generales del Estado 2023.*

**Segundo.-** Aplicar la subida salarial acordada en las nóminas de las personas trabajadoras.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### **7.-2023ko zerga fiskalen aldaketa. Hasierako onarpena.**

Alkateak aldaketaren nondik norakoak eta horren zergatia azaldu ondoren, Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** 2023ko zerga fiskalen 5.3. ataleko 3.5. puntua Udal lokalen erabileraren aldaketa hasieraz onartzea honako hau gehituz:

Fianza: 150,00 €

Udal elkarte eta taldeek eta herrian errolatutako pertsonak ez dute fidantza jarri beharrik izango.

**Bigarrena.-** 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baldiodunez.

**Hirugarrena.-** Alegazioarik aurkeztuz gero, ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

**Laugarrena.-** Alegazioarik aurkeztzen ez bada, hasierako onepen-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

### **7.-Modificación de las Ordenanzas Fiscales 2023. Aprobación inicial.**

El Alcalde tras explicar los pormenores de la modificación y la razón para ello, presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

**Primero.-** Aprobación inicial de la modificación de las ordenanzas fiscales 2023, del punto 5.3. del apartado 3.5. Utilización de locales municipales incorporando:

Fianza: 150,00 €

No estarán obligados a depositar la fianza las asociaciones y grupos municipales y personas empadronadas en el municipio.

**Segundo.-** Conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, el acuerdo de aprobación inicial se someterá a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.

**Tercero.-** Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.

**Cuarto.-** Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### **8.-Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena.**

Alkateak Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

### **8.-Modificación de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones. Aprobación inicial.**

El Alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**Lehena.-** Dirulaguntzak ematea arautzen duen udal Ordenantza hasieraz onartzea.

**Bigarrena.-** Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea.

**Hirugarrena.-** Alegazioarik aurkeztuz gero, ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

**Laugarrena.-** Alegazioarik aurkeztzen ez bada, hasierako onespenez erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Alkateak azaldu du udalak indarrean duen ordenantza 2006ko dela, eta geroztik lege aldaketak egon direla eta denborak ere erakutsi duela ordenantzan hainbat alderdi beste modu batean arautu beharra. Gaineratu du testua jendaurrean dagoen bitartean, saio desberdinak egingo direla udal-langileekin, herritarrekin eta taldeekin.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

**Primero.-** Aprobación inicial de la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones.

**Segundo.-** Someter el expediente a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.

**Tercero.-** Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.

**Cuarto.-** Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.

El alcalde explica que la ordenanza del Ayuntamiento en vigor es de 2006, y que desde entonces ha habido cambios legislativos y que el tiempo también ha demostrado que en la Ordenanza hay aspectos que deben regularse de otra manera. Añade que durante la exposición pública del texto se realizarán diferentes sesiones con el personal municipal, con la ciudadanía y con las asociaciones.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### **9.-Astigarragako Udalean aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia: alegazioak eta behin betiko onarpena.**

Alkateak, araudia jendaurrean egon den bitartean aurkeztu diren alegazioen nondik norakoak azaldu ondoren Kudeaketa eta Pertsonala Batzorde Informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Aurkeztutako alegazioak ONARTZEA, eta 5., 7. eta 12. artikulua aldatzea eta honela idaztea:

“5. artikulua. Kanpoko lan-poltsak.

Izendapena edo kontratazioa ezin bada egin Udalak berak dituen lan-poltsekin, beste herri administrazio batzuek haien plantillako hutsik dauden lanpostuak jabetzan hartzeko deitutako hautapen-prozesuen bitartez, edo lan-poltsak eratzeke hautapen-prozesuen bitartez eratutako lan-poltsetara jo ahal izango du Udalak. Bai eta Astigarragako Udala kide den erakunde publikoetako (sozietate publikoak, partzuergoak...)

### **9.-Reglamento para la gestión de las bolsas de trabajo temporal en el Ayuntamiento de Astigarraga: alegaciones y aprobación definitiva.**

El alcalde, tras explicar los pormenores de las alegaciones presentadas durante la exposición pública, ha presentado para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Gestión y Personal:

**Primero.-** Estimar las alegaciones presentadas, y modificar los artículos 5, 7 y 12, dándoles la siguiente redacción:

“Artículo 5. Bolsas externas.

En el caso que no pueda llevarse a cabo el nombramiento o la contratación con bolsas de trabajo del propio Ayuntamiento, se podrá recurrir a bolsas de otras administraciones públicas, que se hayan constituido mediante procesos selectivos convocados para la provisión en propiedad de plazas vacantes de su plantilla o mediante procesos selectivos para la constitución de Bolsas de Trabajo. Así como a bolsas de trabajo de entidades públicas



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

lan-politsetara ere, baldin eta horiek funtzio publikoaren arloko legeriak hautaketa-prozesu horiek egiteko eskatzen dituen baldintzak betez eratu badira.

Kasu horretan, ondorengo lehentasun-zerrenda aplikatuko da:

1. Multzoa: Gipuzkoako toki administrazioak eta IVAP/HAAE; eta Astigarragako Udala kide den erakunde publikoak.

2. Multzoa: Bizkaia eta Arabako toki administrazioak

Poltsak lagatzeko eskabidea 1. multzoko administrazio eta erakunde guztiei bidali beharko zaie aldi berean.

Zazpi egun balioduneko epean 1. multzoa osatzen duten administrazioek eta erakundeek ez badiote eskabideari erantzun, 2. multzoko administrazioei egingo zaie eskaera, baldin badakigu unean unean behar den kategoriako Lan-poltsa dutela, horretarako beharrezko administrazio-gestioak eginda. Lagatuko Poltsak jasotzen diren ordenan erabiliko dira.

7. artikulua. Lan-poltsak eratzea.

Udal honetako hutsik dagoen edozein lanpostu betetzeko deialdiak lan-poltsa bat sortuko du, gutxienez. Poltsa hori edo horiek eratzeko modua dagokion deialdiaren oinarrietan ezarriko da, baina inola ere ezingo du urratu arau-testu honetan xedatutakoa.

Era berean, oinarrietan ezarriko da ea ofizioz egiaztatuko den eta/edo espedienteari erantsiko zaion, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, baldintzak betetzeari buruzko edo merezimenduei buruzko informazioa, hala nola: egiaztatzea nortasun-datuak, titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak), hizkuntza-eskakizuna, gidabaimena edo IT Txartelak.

12. artikulua. Lehentasun-ordena.

Hautagaien lehentasun-ordena honako prozesu hauetan lortutako puntuazioaren arabera izango da:

(sociedades públicas, consorcios...) de las que sea miembro el Ayuntamiento de Astigarraga, siempre que las mismas se hayan constituido cumpliendo los requisitos que la legislación en materia de función pública exige para llevar a cabo dichos procesos selectivos.

En ese caso, se aplicará el siguiente listado de preferencias:

Bloque 1: Administraciones locales de Gipuzkoa e IVAP y entidades publicas de las que sea miembro el Ayuntamiento de Astigarraga.

Bloque 2: Administraciones locales de Bizkaia y Araba.

La solicitud de cesión de Bolsa se enviará, simultáneamente a todas las administraciones y entidades del bloque 1.

Si en el plazo de 7 días hábiles las Administraciones y entidades integrantes del bloque 1 no han dado respuesta a la petición, se hará la petición a las Administraciones del Bloque 2 de la que se tenga constancia de la existencia de Bolsa de Trabajo de la categoría que se necesite en cada momento, realizando para ello las gestiones administrativas necesarias. Las Bolsas cedidas se usarán según el orden en que se vayan recibiendo.

Artículo 7. Constitución de bolsas de trabajo.

La convocatoria para cubrir cualquier plaza vacante de este Ayuntamiento, generará – por lo menos – una bolsa de trabajo. La forma de constituir dicha bolsa o bolsas vendrá determinado en las bases de la respectiva convocatoria, pero en ningún caso podrá vulnerar lo dispuesto en este texto normativo.

De la misma manera, se establecerá en las bases si se verificará y/o incorporará al expediente de oficio, salvo manifestación expresa en contra por parte del interesado, el cumplimiento de requisitos o información de los méritos, tales como: verificación de datos de identidad, titulaciones académicas (tanto universitarias como no universitarias), perfil lingüístico, carnets de conducir; o IT Txartelak.

Artículo 12. Orden de prelación.

El orden de prelación de las personas candidatas vendrá determinada por la puntuación que se haya obtenido en los siguientes procesos:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

1) *Udalak Enplegu Publikoaren Eskaintzak eginez gero, horietatik sortutako zerrendak.*

2) *Erregelamendu honetan araututako zerrenda-zabaltzearen ondorioz geroago sartzen diren pertsonak.*

*Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke legez administrazio publikoei erreserbatutako kuota iritsi arte, edo negoziazioan ezarritakora iritsi arte, azken hori handiagoa balitz, desgaitasuna duten langileentzako txanda mugatutik datozen zerrendak badaude, 3 kontratutik edo izendapenetik 1 langile horien alde egingo da.*

*Muga berberarekin, desgaitasuna duten langileentzako txanda mugatutik datozen zerrendarik ez badago, langile horien aldeko kontratu- edo izendapen-kopuru bera egiteko ahalegina egingo da, betiere horrekin administrazio publikoetako langileak hautatzeko prozedurak gidatu behar dituzten printzipioak urratzen ez badira. Langile horiek % 33ko desgaitasuna edo handiagokoa aitortua izan beharko dute (Administrazioko organo eskudunak aitortua) eta ezarritako lehenetsun-ordenaren arabera erabili beharreko zerrendan sartuta egon beharko dute.”*

**Bigarrena.-** Behin betikoz ONARTZEA Astigarragako Udalean aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia.

**Hirugarrena.-** Astigarragako Udalean aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudia ARGITARATZEA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren web-orrian.

**Laugarrena.-** Akordio honen BERRI EMATEA alegazioak aurkeztu dituztenei.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da, aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV).

1) *En caso de que el Ayuntamiento realice Ofertas de Empleo Público, las listas creadas de las mismas.*

2) *Personas que se incorporen posteriormente en virtud a la ampliación de listas, regulado en el presente reglamento.*

*Hasta que se alcance la cuota reservada por Ley a las Administraciones Públicas para la contratación de personas con discapacidad o la establecida en negociación si ésta fuera superior, en caso de que existan listas provenientes del turno restringido para personal con discapacidad, 1 de cada 3 contratos o nombramientos se efectuará a favor de este personal.*

*Con el mismo límite, en caso de no existir listas provenientes del turno restringido para personal con discapacidad, se procurará realizar igual número de contratos o nombramientos a favor de este personal que deberá tener reconocida la condición de tal, con discapacidad de grado igual o superior al 33 % por el órgano competente de la Administración y estar integrada en la lista que corresponda utilizar de acuerdo al orden de prelación establecido, siempre que con ello no se vulneren los principios que deben regir los procedimientos de selección del personal de las administraciones públicas”.*

**Segundo.-** APROBAR definitivamente el Reglamento para la gestión de las bolsas de trabajo temporal en el Ayuntamiento de Astigarraga.

**Tercero.-** PUBLICAR el Reglamento para la gestión de las bolsas de trabajo temporal en el Ayuntamiento de Astigarraga, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web municipal.

**Cuarto.-** NOTIFICAR este acuerdo a las alegantes.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen con 7 votos a favor (Astigarragako EHBildu) y 4 abstenciones (EAJ-PNV de Astigarraga).

### **10.-Zero Zabor Udalerrriak ziurtapen programan parte hartzea (Zero Waste cities Certification Programme)**

Alkateak adierazi du Udalak hondakinen murrizketan eta prebentzioan areagotu nahi duela, sortzen diren hondakin katearen lehenengo mailan indarrak jarrita, eta programaren nondik norakoak

### **10.-Participación en el programa de certificación Zero Zabor Udalerrriak (Zero Waste cities Certification Programme)**

El alcalde señala que el ayuntamiento quiere intensificar la reducción y prevención de residuos, poniendo énfasis en el primer eslabón de la cadena de residuos, y tras explicar los pormenores del





## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

eta bertan parte hartzeak dituen abantaiak azaldu ondoren Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna Batzorde Informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehenengoa.-** *Atxikitzea Zero Zabor Udallerriak Ziurtatzeko Programari (Zero Waste cities Certification Programme)*

**Bigarrena.-** *Konpromisioa hartzea Zero Zabor Udallerriak Ziurtapen-programaren barruan Astigarragako udalari eska dakizkiokeen betekizunak eta zereginak betetzeko.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da ,

programa y las ventajas de participar en el mismo, presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Movilidad:

**Primera.-** *Adherirse al programa de certificación Zero Zabor Udallerriak (Zero Waste cities Certification Programme)*

**Segunda.-** *Comprometerse a cumplir los requisitos y tareas que se le puedan exigir al Ayuntamiento de Astigarraga, dentro del programa de certificación de municipios Zero Zabor.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por unanimidad.

### **11.-Nortasun juridikorik gabeko elkartzea, uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko (PERTE uraren zikloaren digitalizazioa).**

Alkateak azaldu du TED/934/2022 Aginduak (*agindu horren bidez, uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, bai eta dirulaguntzen lehen deialdia ere (2022), uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuen norgehiagoka bidezko deialdi bidez (PERTE uraren zikloaren digitalizazioa), Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan*) araututako dirulaguntzen deialdian parte hartzeko talde bat eratu behar dela AGASA eta Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Urnieta eta Lezoko udalerriekin.

Azaldu du dirulaguntza DIGURBE izeneko proiektuarentzako eskatuko dela, 10 milioitik gorako jarduketarentzako, eta proiektu hori prestatzen paper berezia eduki dutela udaleko obra eta zerbitzuetako saileko langileek, izan ere, Astigarraga gai horretan besteek baino aurreratuago doa.

Gaineratu du Udalak ez duela proiektu horretan jasotako jarduketa guztiak egin behar, horietako askok eginda dituelako, baina ezinbestekoa dela horiek bukatzea. Dena den, udalerrri bakoitzak bere proiektuaren zatia kudeatu beharko duela eta dagokion lizitazioa egin.

Ondoren, bozeramaile batzordearen bi irizpen hauek

### **11.-Agrupación sin personalidad jurídica para la elaboración de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua (PERTE digitalización del ciclo del agua).**

El alcalde explica que para participar en la convocatoria de subvenciones reguladas por la Orden TED/934/2022 (por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas en régimen de concurrencia competitiva para la realización de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua y la primera convocatoria de subvenciones (2022), mediante convocatoria en concurrencia competitiva de proyectos para la mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua (digitalización del ciclo del agua PERTE), en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia), es necesario constituir un grupo con I AGASA y los municipios de Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Urnieta y Lezo.

Explica que se va a solicitar subvención para el proyecto DIGURBE, con una actuación de más de 10 millones, y que en la elaboración de este proyecto ha tenido un papel especial el personal del departamento de obras y servicios del Ayuntamiento, ya que Astigarraga va más avanzado que el resto en esta materia.

Añade que el Ayuntamiento no tiene que realizar todas las actuaciones recogidas en dicho proyecto, ya que muchas de ellas ya están hechas, pero que es imprescindible finalizarlas. Pero que en todo caso, cada municipio deberá gestionar su parte del proyecto y realizar la correspondiente licitación.

Acto seguido, presenta para su aprobación, los



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

aurkeztu ditu onartzeko:

### **PERTE uraren zikloaren digitalizazioa. Taldea osatzea.**

**Lehenengoa.-** Erakundeak (udalak eta AGASA) elkartzeko erabakia onartzea, nortasun juridikorik gabeko talde bat formalki eratzeko, Añarbeko Urak, SA-k, Errenteriako Udalak, Hernaniko Udalak, Lasarte-Oriako Udalak, Pasaiaiko Udalak, Oiartzungo Udalak, Astigarragako Udalak, Usurbilgo Udalak, Urnietako Udalak eta Lezoko Udalak batera parte har dezaten –DIGURBE izeneko proiektuarekin– irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren bidez araututako dirulaguntzen deialdian (agindu horren bidez, Uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko laguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, eta dirulaguntzen lehen deialdia egin (2022), uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak norgehiagoka bidez egiteko (PERTE, uraren zikloaren digitalizazioa).

**Bigarrena.-** Zuzenbidean eskatzen den bezainbesteko ahalorde zabala eta nahikoa ematea honako honen alde:

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA erakundea (IFZ zk.: A 20538039), DIGURBE izeneko proiektua garatuko duen Elkartearen barruan dagoen erakunde ahalorde-emailearen izenean eta hura ordezkatzuz, jardun dezan, proiektu horren esparruan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrean, prozedurari jarraituz bere tramite guztietan, eta, ondorio horretarako, sina ditzan horretarako beharrezkoak diren adierazpen eta dokumentu publiko eta/edo pribatu guztiak, eta, zehazki, gara ditzan irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren 6.b.iv) artikuluan deskribatutako eginkizun guztiak —agindu horren bidez, onartu egiten dira uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidez laguntzak emateko oinarri erregulatzailerak, eta uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak (uraren zikloa digitalizatzeko ESEPE) egiteko norgehiagoka bidezko dirulaguntzen lehen deialdia (2022), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan—:

**Hirugarrena.-** Elkartze-akordioa Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren

siguientes dos dictámenes:

### **Digitalización del ciclo del agua PERTE. Crear la agrupación**

**Primero.-** Aprobar el acuerdo de agrupación de entidades (Ayuntamientos y AGASA), para constituir formalmente una agrupación sin personalidad jurídica, para que Aguas del Añarbe, S.A. (coordinador), el Ayuntamiento de Errenteria, el Ayuntamiento de Hernani, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, el Ayuntamiento de Pasaia, el Ayuntamiento de Oiartzun, el Ayuntamiento de Astigarraga, el Ayuntamiento de Usurbil, el Ayuntamiento de Urnieta y el Ayuntamiento de Lezo, participen – con el proyecto denominado DIGURBE – en la convocatoria de subvenciones reguladas por la Orden TED/934/2022, de 23 de septiembre, por la que se aprueban las bases reguladoras y se convocan, por el procedimiento de concurrencia competitiva, las ayudas a la realización de proyectos para la mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua (PERTE, digitalización del ciclo de agua).

**Segundo.-** Conceder poder tan amplio y bastante como en derecho se requiera a favor de:

La entidad Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A., con N.I.F. nº A20538039, para que, en nombre y representación de la entidad poderdante, integrada en la Agrupación que va a desarrollar el Proyecto denominado DIGURBE actúe, en el marco del citado Proyecto, ante el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, siguiendo el procedimiento en todos sus trámites, firmando al efecto cuantas declaraciones y documentos públicos y/o privados sean necesarios, y, en concreto, desarrollando todas las funciones descritas en el artículo 6.b.iv) de la Orden TED/934/2022, de 23 de septiembre, por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas por concurrencia competitiva para la elaboración de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua y la primera convocatoria de subvenciones (2022) en concurrencia competitiva de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua (PERTE digitalización del ciclo del agua), en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

**Tercero.-** El acuerdo de agrupación se ajustará a lo dispuesto en el artículo 67 del Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 67. artikuluan xedatutakoaren mende egongo da, Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planarekin lotutako jardueretarako laguntzen deialdietarako eskabideak aurkezteko taldeei dagokienez.

**Laugarrena.-** Elkartzeko erabakia eta bigarren puntuko ahalordetzea behin betiko ebazpen bidez laguntzaren onuradun deklaratzaren baldintzapean geratuko da.

**Bosgarrena.-** Alkateari ahalmena ematea Astigarragako Udalaren izenean eta ordezkartzan erabaki hau betearazteko eta eraginkortasun juridikoa izateko beharrezko diren dokumentuak sinatzeko.

### PERTE uraren zikloaren digitalizazioa. Dirulaguntza.

**Lehenengoa.-** Irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduak erregulatutako prozeduran parte hartzea eta berori espresuki onartzea, eta, horrenbestez, prozedura hori onartzea eta horri men egitea, erregulatuta dagoen bezala.

**Bigarrena.-** Onartzea AGASA buru duen Talde-proiektuan barne hartutako udalerrian egin beharrezko jarduketak. Astigarragako Udalak harekin parte hartzen du aurretik deskribatutako deialdian. Jarraian, jarduketa horiek deskribatzen dira:

Izenburua: DONOSTIALDEKO URAREN ZIKLOAREN DIGITALIZAZIOA (DIGURBE)

Xedea: Errenteria, Hernani, Lasarte Oriá, Pasaia, Astigarraga, Usurbil, Urnieta eta Lezoko udalerrietako inbentarioak eta hornidura eta saneamendua kudeatzeko prozesuak digitalizatzea

Udalerrian egin behar diren eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, en relación con los grupos de presentación de solicitudes para las convocatorias de ayudas para actuaciones relacionadas con el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de la Economía Española.

**Cuarto.-** El acuerdo de agrupación y el apoderamiento del punto segundo quedarán condicionados a la declaración de persona beneficiaria de la ayuda mediante resolución definitiva.

**Quinto.-** Facultar al Sr. Alcalde para que en nombre y representación del Ayuntamiento de Astigarraga suscriba cuantos documentos sean precisos en ejecución y eficacia jurídica del presente acuerdo.

### Digitalización del ciclo del agua PERTE. Subvención.

**Primero.-** Participar y aceptar expresamente el procedimiento regulado por la Orden TED/934/2022, de 23 de septiembre, y por consiguiente la aceptación y sumisión al mismo tal y como está regulado.

**Segundo.-** Aprobar las actuaciones a realizar en el municipio que incluye el proyecto en agrupación liderado por AGASA con el que el Ayuntamiento de Astigarraga participa en la convocatoria anteriormente descrita que a continuación se describen:

Título: DIGITALIZACIÓN DEL CICLO DEL AGUA DE DONOSTIALDEA (DIGURBE).

Objeto: Digitalización de los inventarios y los procesos de gestión del abastecimiento y saneamiento municipales de los municipios de Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Astigarraga, Usurbil, Urnieta y Lezo.

Actuaciones subvencionables a realizar en el municipio :

A2-A1-01	Toma de datos redes de Abastecimiento
A2-A3-02	Determinación de estado de las redes de abastecimiento. Reducción de pérdidas de agua (Fugas estructurales)
S1-A1-01	Toma de datos redes SA y Levantamiento de aliviaderos e instalaciones de SA
S1-A2-01	Redacción de los Planes Integrales de Saneamiento: Estado actual, datos del funcionamiento, modelización y sectorización de las redes de saneamiento de agua



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

	<i>residual.</i>
AT-C3-05	Desarrollo del nuevo sistema de control unificado (SCADA +)

3. Jarduketan aurrekontua (BEZa barne): 257.956,57 €.

3. Presupuesto de las actuaciones (IVA incluido): 257.956,57 €.

4. Jarduketan aurrekontua gastu hautagarriaren gainean (BEZik gabe): 213.187,25 €

4. Presupuesto de las actuaciones sobre gasto elegible (IVA excluido): 213.187,25 €.

5. Gastu hautagarriaren gainean eskatutako dirulaguntza (BEZik gabe): 149.231,08 €.

5. Subvención solicitada sobre gasto elegible (IVA excluido): 149.231,08 €.

6. Baterako finantzaketa: 63.956,17 €.

6. Cofinanciación: 63.956,17 €.

7.-. Egikaritze-epea: 2025/12/31.

7. Plazo de ejecución: 31/12/2025.

8. Dirulaguntza ematen duen erakundea: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumeneko Estatu Idazkaritza.

8. Entidad que concede la subvención: Secretaría de Estado de Medio Ambiente del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico.

9. Dirulaguntza eskatzen duen organoa: TALDEA.

9. Órgano que solicita la subvención: AGRUPACIÓN

Unitate exekutatzailea: ASTIGARRAGAKO UDALA.

Unidad ejecutora: AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA.

**Hirugarrena.-** Proiektua hautatuz gero eta eskatutako dirulaguntza emanez gero, konpromisoa hartzea aurrekontu-zuzkidura izateko eta planteatutako proiektua finantzatzeko kreditu nahikoa gaitzeko, proiektua egikaritzeko onartzen den egutegiaren arabera.

**Tercero.-** Asumir el compromiso de contar con dotación presupuestaria y habilitar crédito suficiente para financiar el proyecto planteado, conforme al calendario que se apruebe para la ejecución del mismo, en el supuesto de que el proyecto sea seleccionado y sea concedida la subvención solicitada.

Proiektuaren parte diren jarduketa horiek gauzatzeko eta horien sostengu ekonomikoa bermatzeko, Udalak dagozkion aurrekontu-aldaketak egingo ditu, jarduerak finantzatze aldera.

A los efectos de llevar a cabo las mencionadas actuaciones que forman parte del Proyecto y de garantizar el sostenimiento económico de las mismas, el Ayuntamiento procederá a efectuar las modificaciones presupuestarias que procedan, de cara a financiar las actuaciones.

Edonola ere, proiektuan jasotako jarduketetan diruz lagundu ezin den zatia finantzatzeko, laguntzak ematen dituen erakundearen ebazpena lortu beharko da eta horren eduki zehatzari jarraituko zaio.

En cualquier caso, la financiación de la parte no subvencionable de las actuaciones incluidas en el Proyecto quedará condicionada a la obtención de la resolución del organismo concedente de las ayudas y a su concreto contenido.

**Laugarrena.-** Konpromisoa hartzea Astigarragako Udalak behar diren baliabide teknikoak eta finantzarioak izan ditzan, diruz lagundutako jarduketa abian jarri ondoren eta gutxienez jardueraren lehenengo bost (5) urteetan hura mantendu eta gauzatu dela bermatzeko.

**Cuarto.-** Asumir el compromiso de que el Ayuntamiento de Astigarraga cuente con los recursos tanto técnicos como financieros necesarios para garantizar el mantenimiento y operación de la actuación subvencionada tras su puesta en marcha y durante al menos los primeros cinco (5) años de actividad.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**Bosgarrena.-** Alkateari ahalmena ematea Astigarraga Udalaren izenean eta ordezkarietan erabaki hau betearazteko eta eraginkortasun juridikoa izateko beharrezko diren dokumentuak sinatzeko.

**Quinto.-** Facultar al Alcalde, en nombre y representación del Ayuntamiento de Astigarraga, para la suscripción de cuantos documentos sean precisos en orden a la ejecución y eficacia jurídica del presente acuerdo.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **bi irizpenak aho batez onartu** dira.

A continuación se procede a votar y se **aprueban** los **dos dictámenes** por **unanimidad**.

### 12.- Informazio, galdera eta eskariak.

#### a.- Arrobitxuloko autoen sarrera eta irteera

Arrobitxuloko zenbait bizilagun bertaratu dira, auzorako autoen sarbideko itxieraz galdetzeko eta kexatzeko. Adierazi dutenez, igogailua jarri izanaren ondorioz, sarbidea itxi egin da, eta horren asmoa bazen igogailuen erabiltzaileek babestea, baranda bat jarrita aski zela. Oraingo irtenbidearekin etxetik ateratzeko autoarekin auzoari buelta osoa eman behar diotela eta denbora asko galtzen dutela, eta ez dutela ulertzen hartutako erabakia.

Alkateak azaldu dio udal gobernu taldeak beste ikuspuntu bat duela. Bidegurutze horretan auzoko sarrerak eta bi biribilguneak bat egiten dutela, eta, orain, hiri-igogailurako sarbidea ere dela. Gaineratu du asmoa dela itxitura hori mantentzea eta eremu hori oinezkotzea. Izan ere, herritar ugari pasatzen direla bertatik, eta haur, gazte, zein helduen segurtasuna bermatzeko, oinezko eremu bat bihurtuko dela, oinezkoei lehentasuna eman behar zaielako, hori izanik Europako irizpide nagusia. Dena den, industrialdeko irteera hobetzeko proiektua idazten daudela eta Izaskun kaleko obrak bukatzean hori ere erabiltzeko aukera izango dutela.

Bizilaguntzat, berriz, ez da beharrezkoa sarbidea ixtea, Santio zeharra ixten ez den bezala. Beren hitzetan igogailuaren erabilera momentu puntualetan ematen da, segurtasuna bermatzeko beste irtenbide batzuek egon daitezke ez dutenak trafikoa ixtera behartzen, eta hartutakoak eragina du erregai-gastuan eta immisioetan. Eta gaineratu dute erabaki horrekin lehentasuna ematen zaiela Urumea berriko bizilagunei, herrira etorritako azkenekoei.

Xabier eta Andonik azaldu diete Santio zeharra ez bada ixten dela bertakoek ez dutelako beste biderik, ulertzen dutela haien kezka, baina ez dela bateragarria bi erreiko errepide bat egitea eta

### 12.- Información, ruegos y preguntas.

#### a.- Entrada y salida de coches de arrobitxulo

Varios vecinos y vecinas de Arrobitxulo se han personado para preguntar y quejarse por el cierre del acceso de coches al barrio. Indican que con la instalación del ascensor se ha cerrado el acceso y que si lo que se pretendía era proteger a las personas usuarias del ascensor, era suficiente con instalar una barandilla. Que con la solución actual, para salir de casa, tienen que dar toda la vuelta al barrio con el coche y pierden mucho tiempo; y que el acuerdo adoptado.

El alcalde les explica que el equipo de gobierno tiene otro punto de vista. Que en este cruce confluyen el acceso al barrio y dos rotondas, siendo ahora también acceso al ascensor urbano. Añade que la intención es mantener dicho cierre y peatonalizar la zona. Dado que por ahí pasa mucha gente, y para garantizar la seguridad de niñas y niños, juventud y adultas y adultos, se va a convertir en una zona peatonal, ya que hay que dar prioridad a las y los peatones, siendo ello el criterio principal de Europa. Pero que se está redactando el proyecto de mejora de la salida por el polígono industrial y que al finalizar las obras en la Izaskun kalea, también podrán utilizarla.

Para las vecinas y vecinos no es necesario cerrar el acceso, como tampoco se cierra Santio zeharra. Dicen que el uso del ascensor se da en momentos puntuales, que pueden existir otras soluciones de seguridad que no obliguen al cierre del tráfico y que el acuerdo adoptado afecta al gasto de combustible y las inmisiones. Y añaden que con esta decisión se da prioridad a la vecindad de Urumea Berri, a las últimas en venir a la localidad.

Xabier y Andoni les explican que si Santio zeharra no se cierra es porque la vecindad de allí no tienen otro acceso, que entienden su preocupación, pero que no es compatible una carretera de dos carriles y garantizar la seguridad. Añaden que cuando en



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

segurtasuna bermatzea. Gaineratu dute Emakumeon plazan antzeko erabaki bat hartu zenean, hasieran inguruko auzokideen kezak egon zirela, baina orain ondo ikusten dutela. Eta gaineratu dute, Udalaren asmoa dela autoak herrigunetik kentzea, oinezkoen lehentasuna ematea, eta hartutako erabakiak auzoarentzat ere onuragarria dela.

### b.- DBHko ekipamendua

Nerea zinegotziak DBHko ekipamenduaren egoerari buruz galdetu du, eta alkateak azaldu dio Eusko Jaurlaritzak udalak eskainitako partzela onatu ondoren, obra-proiektua idazteko lizitazioa martxan jarri duela, eta aurreikusita dagoenez, C kartazalak martxoaren 30ean irekiko direla. Gaineratu du espero dela proiektua uda aurretik idatzita egotea.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko urtarrilaren 31n

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko udal-idazkaria

Emakumeon plaza se adoptó una decisión similar, al principio hubo quejas de la vecindad de la zona, pero que ahora lo ven bien. Y añaden que es intención del Ayuntamiento la retirada de coches del casco urbano, ya que se quiere dar prioridad a las y los peatones, y que acuerdo adoptado también beneficia al barrio.

### b.- Equipamiento de la ESO

La concejal Nerea pregunta por la situación del equipamiento de la ESO y el alcalde le explica que, tras aceptar el Gobierno Vasco la parcela ofrecida por el Ayuntamiento, ha puesto en marcha la licitación para la redacción del proyecto de obras, estando previsto que los sobres C se abran el 30 de marzo. Y añade que se espera que el proyecto esté redactado antes del verano.